

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA (ETHI), 2010ko URTARRILA

Bidaiarien sarrerak %12 gehitu ziren 2010eko urtarrilean

Gaualdiak %7 handitu ziren 2009ko urtarriaren aldean

2010ko urtarrilean, 112.615 bidaiari-sarrera erregistratu ziren Euskal AEko hotel-establezimenduetan, aurreko urteko hil berean baino 11.600 sarrera gehiago, hau da, %12ko gehikuntza, Eustatek eskainitako datuen arabera. Bidaiari-sarrerak %21 igo ziren Araban, %14 Gipuzkoan eta %7 Bizkaian.

Estatutiko bidaiarien sarrerek %10eko igoera izan dute eta atzeritik etorritakoenek %18koa. Estatutiko bidaiarien kopurua igo egin zen hiru herrialdeetan: Araban %28 hazi zen, Bizkaian %7 eta Gipuzkoan %5. Atzeritarrek %40 ugaritu dira Gipuzkoan eta %7 Bizkaian; Araban %3 jaitsi.

Estatutiko bidaiarien artean Balearretatik, Gaztela-Leondik eta Kataluniatik etorritakoak ehuneko handiago batez ugaritu dira; jaitsi egin dira Gaztela-Mantxatik, Murtziatik, Ceutatik eta Melillatik etorritakoak. Atzeritarren artean goraka ditugu Frantzia, Belgika, Finlandia eta Erresuma Batua, besteren artean; beheerak Danimarka, Herbehereak, Suedia eta Japonia.

Gaualdiak, 2010ko urtarrilean, 195.116 izan ziren, aurreko urteko urtarrilean baino %7 gehiago, hots, 12.000 gaualdi pasa gehiago. Gaualdiek urte batetik bestera bilakaera positiboa izan dute hiru lurraldeetan: Araban %10 igo ziren, Gipuzkoan %7 eta Bizkaian %5.

Euskal AE osotara hartuta, bidaiarien batez besteko egonaldia 2009ko urtarriko 1,81 egunetik aurtengo 1,73 egunera pasa da. Indizea hiru herrialdeetan jaitsi zen: Araban %9 jaitsi zen, Gipuzkoan %6 eta Bizkaian %2. Araban batezbesteko egonaldia 2010eko urtarrilean 1,65 egun izan zen; Bizkaian 1,72; Gipuzkoan 1,78.

Plazakako betetze-maila %2 jaitsi da; 2010eko urtarrilean %25,62 da. Araban betetze-maila %21,18 izan da (%-12) eta Bizkaian %25,51 (%-2). Gipuzkoan, berriz, betetze-maila %4 igo da 2009ko urtarriaren aldean; %28,12 izan da.

NEKAZALTURISMOA

Sarrerak %3 hazi eta gaualdiek lehengoan iraun dute Euskal AEn, 2009ko urtarriaren aldean

Joan den urtarrilean 4.257 bidaiari izan dira Euskal AEko nekazalturismoetan, hots, aurreko urteko hilabete berean baino %3 gehiago; bidaiari kopurua %46 gehitu da Bizkaian, baina gutxitu egin da Gipuzkoan, %13, eta Araban %6. Estatutik etorritako bisitariak %4 handitu ziren Euskal AEn: Bizkaian %47 igo ziren; Araban eta Gipuzkoan jaitsi: %9 eta %11. Euskal AEn %15 atzeritar gutxiago izan da: Gipuzkoan dezente murriztu dira; Araban eta Bizkaian (ehunekoak aintzat hartuta) nabarmen egin dute gora.

Euskal AEko nekazalturismoko establezimenduetan egindako gualdiak 10.642 izan dira urtarrilean, lehengo urteko hil berean bezalaxe ia. Urte arteko hazkunde-tasak positiboak izan dira Bizkaian (%23), baina negatiboak Araban (%-18) eta Gipuzkoan(%-1).

Bidaia-eraren batez besteko egonaldiaren iraupena murriztu egin da Euskal AEn, 2009ko urtarrilaren aldean; hain zuzen, duela urtebete 2,56 eguneko batez bestekoa izan zen eta aurtengoan 2,50koa. Bilakaera negatibo hau Araban eta Bizkaian izan da; Gipuzkoan indizea %14 igo da.

Plazakako betetze-maila, azkenik, %3 jaitsi da, %9,81etik %9,55era; Araban (%-26) eta Gipuzkoan (%-4) izandakoen ondorioz; Bizkaian %24 hazi da.

1. Taula: Hileko emaitzak

	EUSKAL AE						ARABA						BIZKAIA						GIPUZKOA					
	01	(%)	01	(%)	Δ %		01	(%)	01	(%)	Δ %		01	(%)	01	(%)	Δ %		01	(%)	01	(%)	Δ %	
	2010		2009				2010		2009				2010		2009				2010		2009			
HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK																								
GAUALDIAK	195.116	100	182.863	100	7		28.386	100	25.834	100	10		94.959	100	90.208	100	5		71.771	100	66.821	100	7	
Estatukoak	140.545	72	136.629	75	3		22.332	79	19.761	76	13		68.656	72	66.571	74	3		49.557	69	50.297	75	-1	
Atzerrikoak	54.571	28	46.234	25	18		6.054	21	6.073	24	0		26.303	28	23.637	26	11		22.214	31	16.524	25	34	
Hiriburua	124.588	64	114.948	63	8		22.016	78	20.848	81	6		63.616	67	59.471	66	7		38.956	54	34.629	52	12	
Litoral	14.866	8	12.267	7	21		-	-	-	-	-		6.257	7	4.998	6	25		8.609	12	7.269	11	18	
Barnealdea	55.662	29	55.648	30	0		6.370	22	4.986	19	28		25.086	26	25.739	29	-3		24.206	34	24.923	37	-3	
BIDAIARIEN SARRERAK	112.615	100	100.983	100	12		17.233	100	14.225	100	21		55.168	100	51.430	100	7		40.214	100	35.328	100	14	
Estatukoak	85.045	76	77.543	77	10		14.087	82	10.969	77	28		42.831	78	39.882	78	7		28.127	70	26.692	76	5	
Atzerrikoak	27.570	24	23.440	23	18		3.146	18	3.256	23	-3		12.337	22	11.548	22	7		12.087	30	8.636	24	40	
Hiriburua	72.024	64	62.903	62	15		12.602	73	11.087	78	14		36.530	66	32.559	63	12		22.892	57	19.257	55	19	
Litoral	9.109	8	8.063	8	13		-	-	-	-	-		3.457	6	3.080	6	12		5.652	14	4.983	14	13	
Barnealdea	31.482	28	30.017	30	5		4.631	27	3.138	22	48		15.181	28	15.791	31	-4		11.670	29	11.088	31	5	
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,73		1,81		-4		1,65		1,82		-9		1,72		1,75		-2		1,78		1,89		-6	
BETETZE-MAILA PLAZAKA	25,62		26,09		-2		21,18		23,95		-12		25,51		26,14		-2		28,12		26,97		4	
Hiriburua	28,22		28,86		-2		23,29		28,74		-19		29,21		28,89		1		30,14		28,89		4	
Litoral	22,55		19,35		17		-		-		-		18,60		17,13		9		26,65		21,24		25	
Barnealdea	21,92		23,27		-6		16,13		14,11		14		20,77		23,38		-11		25,84		26,61		-3	
BETETZE-MAILA GELAKA	33,86		33,87		0		27,52		31,95		-14		35,24		34,89		1		35,19		33,28		6	
Hiriburua	37,81		37,20		2		31,63		39,51		-20		41,19		37,70		9		36,41		34,90		4	
Litoral	28,15		24,63		14		-		-		-		22,56		22,32		1		33,53		26,61		26	
Barnealdea	28,21		30,38		-7		18,10		16,46		10		27,35		32,53		-16		34,00		33,44		2	
NEKAZALTURISMOA																								
GAUALDIAK	10.642	100	10.595	100	0		2.209	100	2.704	100	-18		3.163	100	2.575	100	23		5.270	100	5.316	100	-1	
Estatukoak	9.468	89	8.950	84	6		2.099	95	2.472	91	-15		2.804	89	2.249	87	25		4.565	87	4.229	80	8	
Atzerrikoak	1.174	11	1.645	16	-29		110	5	232	9	-53		359	11	326	13	10		705	13	1.087	20	-35	
BIDAIARIEN SARRERAK	4.257	100	4.146	100	3		886	100	947	100	-6		1.473	100	1.007	100	46		1.898	100	2.192	100	-13	
Estatukoak	4.056	95	3.910	94	4		851	96	933	99	-9		1.410	96	958	95	47		1.795	95	2.019	92	-11	
Atzerrikoak	201	5	236	6	-15		35	4	14	1	150		63	4	49	5	29		103	5	173	8	-40	
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	2,50		2,56		-2		2,49		2,86		-13		2,15		2,56		-16		2,78		2,43		14	
BETETZE-MAILA PLAZAKA	9,55		9,81		-3		9,48		12,88		-26		9,04		7,29		24		9,92		10,29		-4	
BETETZE-MAILA GELAKA	11,13		12,12		-8		10,13		16,45		-38		10,54		9,21		14		11,98		12,43		-4	

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

 Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

 Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

 Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp